

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak sindikatuei beraien hauteskundeetarako aurre-errola helarazi die

9.000 irakaslek baino gehiagok dute Nafarroan bozkatzeko eskubidea

Asteartea, 2019.eko martxoak 12

Hezkuntza Departamentuak Foru Erkidegoko administrazioan egingo diren sindikatuen hurrengo hauteskundeetan hautesle eta aukeragarri izan daitezkeen irakasle guztien aurre-errola helarazi die sindikatuei gaur goizean.

Plazen titularrak direnekin batera, bitarteko langileak eta ordezkapen batengatik kontratatuak diren pertsonak ageri dira erroldan; alegia, dokumentua sortu den unean bozkatzeko eskubidea duten pertsona guztiak.

Hauteskundeak maiatzaren 22an egitea aurreikusi da eta datozen asteetan, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Orokorrak zehaztutako egutegiaren baitan, hauteskunde mahaiak eratzeko eta prozesu guztiaren antolaketa lanak hasiko dira.

Hauteskunde hauetatik datozen lau urteetarako unibertsitatez kanpoko Irakasleen Batzordea hautatuko da, eta hala administrazioaren negoziazio mahai ezberdinetan ordezkari izango duten sindikatuak zehaztuko dira. Hezkuntzari dagokionenean, gaur egun Mahai Sektorialean LAB, STEILAS, AFAPNA, ELA, ANPE, CCOO eta UGT daude ordezkatuak.